



Alkatearen esanetan, azken bi urteotan harremanetan izan dira Altadisekin, baina hala ere, ez dute oraindik gaiari serio heltzea lortu.

Gogorarazi behar da, Tabakalera eraikitzeko hitzarmenak dienez, lantegia behin itxita, Egiako lursaila Donostiari itzuli behar zaiola. *"Donostia dagozkion eskubideak aldarrikatu besterik ez da egiten ari. Altadisek, ordea, ez ditu eskubideok onartzen"*, dio alkateak.


## Beste zaharretxe bat

Udal Gobernuak argi berdea eman dio Altzako Berran zaharrentzako egoitza bat, eguna pasatzeko zentro bat eta zenbait apartamentu egiteko egitasmoari. Proiektua enpresa pribatu baten esku geratuko da. Guztira, 20 eta 40 apartamentu bitarte egingo dira eta denek errenta soziala izango dute. Berrako lursailean, hasieran, gazteentzako etxeak egiteko asmoa zegoen, baina azkenik, Udalak lehen aipatutako proiektuaren alde egin du.



## Anfibioei buruzko jardunaldiak

Hilaren 15ean eta 16ean, ostirala eta larunbata, anfibioei buruzko jardunaldiak egingo dira Donostian, Arantzadi Zientzia Elkarteak, Haritzalde taldearen eta Espainiako Herpetologia Elkartearen laguntzaz, antolatuta. Guztira, Europa osoko 20 bat adituk parte hartuko dute. Adituok hainbat gai jorratuko dituzte: anfibioen gainbeheraren arrazoia, babes planak eta gainbeherari aurre egiteko neurriak, besteak beste.



## Oteizaren eskultura maitzan jarriko da

Odon Elorza alkateak jakinarazi duenez, Pasealeku Berrian jartzekoa den Jorge Oteizaren eskultura maitza bukaeran edo ekaina hasieran jarriko da. Elorzaren esanetan, eskulturaren kokalekuan zenbait lantxo egin beharko dira artelana jarri baino lehen. Eskultore oriotarraren lanak 6 metroko altuera du eta 26 tona pisatzen ditu.

